



**Espedientea: 3HI-023/15-P03**

**ARRASATE**

Hiri-antolamenduko Plan  
Orokorra

**Expediente: 3HI-023/15-P03**

**MONDRAGON**

Plan General de  
Ordenación Urbana

TOMÁS ORALLO QUIROGAK,  
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
LURRALDE ANTOLAMENDURAKO  
BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT** Euskal Autonomia  
Erkidegoko Lurralde  
Antolamendurako Batzordeak urriaren  
14an izandako 6/2015 Osoko  
Bilkuran, besteak beste, honako  
erabaki hauek hartu zituztela, aho  
batez, kideen gehiengo osoa eratzen  
zuten bertaratutakoek:

“**I.1.** Merkataritza-erabilerara  
zuzendutako lurzoruen  
antolamendua.

Alderdi horri dagokionez,  
aurkeztutako dokumentazio grafiko  
eta idatziaren bidez, jarduera  
ekonomikorako poligonoen mugaketa  
berria proposatu da, merkataritza-  
erabilerak arautzeko.

Proposamenari ez zaio eragozpenik  
jartzen, kontuan hartuta Auzitegi  
Gorenak 2015eko irailaren 3an  
emandako epaiak bertan behera utzi  
dituela Jarduera Ekonomikoetarako  
Lurzorua Sortzeko eta Saltoki  
Handiak Antolatzeko Lurraldearen  
Arloko Planak merkataritza-gunetara  
zuzendutako gehienezko azalera  
arautzean eragiten duten  
zehaztapenen alderdiak.

2. Kobateko harrobia,

Aurkeztutako dokumentazioan, S-17  
Kobate Sektorea 1985.01.11n behin  
betiko onartutako Udal-plangintzaren  
Arau Subsidiarioetan jasota zegoela

TOMÁS ORALLO QUIROGA,  
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO  
DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO** que en la Sesión 6/2015  
del Pleno de la Comisión de  
Ordenación del Territorio del País  
Vasco, celebrada el día 14 de  
octubre, se adoptó, entre otros, por  
unanimidad de los asistentes que  
conformaban la mayoría absoluta de  
sus miembros, los siguientes  
acuerdos:

“**I. 1.** Ordenación del suelo destinado  
a usos comerciales.

En relación con dicho aspecto, a  
través de la documentación gráfica y  
escrita presentada se propone una  
nueva delimitación de polígonos de  
actividad económica a efectos de la  
regulación del uso comercial.

Teniendo en cuenta que como  
resultado de la sentencia emitida por  
el Tribunal Supremo con fecha 3 de  
septiembre de 2015, han sido  
anuladas las determinaciones  
establecidas en el Plan Territorial  
Sectorial de Creación Pública de  
Suelo para Actividades Económicas y  
de Equipamientos Comerciales en lo  
que las mismas afectan a la  
regulación de la superficie máxima  
destinada a equipamientos  
comerciales, se considera que no  
procede poner objeción alguna a la  
propuesta.

2. Cantera de Kobate,

En la documentación presentada se  
hace referencia a que el Sector S-17  
Kobate se encontraba recogido en las  
Normas Subsidiarias de Planeamiento



aipatzen da. Arau horiek sektore hori garatzekotan Plan Partzial bat idatzi behar zela ezartzen dute. Plan hori 1993.01.19an onartu zen behin betiko. Plangintza horrekin bat, Kobate eremuak 1996.03.4an onartutako konpentsazio-proiektua eta 1994.12.20an behin betiko onartu zen urbanizazio-proiektua jaso zituen. Azken horrek sektorearen urbanizazioa hiru fasetan programatu zuen. Bakarrik dago exekutatzeko hiru horietako hirugarrena. Horrek gaur egun erauzketa-erabilerari lotuta dagoen eremua berreskuratzeko asmoa jasotzen du, ustiapenaren emakidaren epea amaitutakoan.

Aurkeztutako idatzia dokumentazio grafiko baten bidez osatzen da. Dokumentazio horretan, S-17 Sektorearen mugaketa Plan Orokorrak ezarritakoarekin bat agertzen da. Gainera, "Kobate" ustiapenaren emakidako lursailak bereizten ditu, bai sektorearen barruan daudenak, bai horren ingurukoak, urbanizaezin gisa sailkatuta dagoen lurzoruan.

Aldeko irizpena ematen zaio, kontuan hartuta aurkeztutako dokumentazioak bete egiten dituela gai hori mahai gainean geratzea arrazoitu zuten alderdiak, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak emandako txostenari dagokionez.

**II.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek egindako txostenak bidaltzea: Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia (I. eranskina); Etxebizitza Sailburuordetza (II. eranskina); Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (III. eranskina); URA-Uraren Euskal Agentzia (IV. eranskina); Garraio Azpiegituren Zuzendaritza (V. eranskina); Nekazaritza eta

Municipal aprobadas definitivamente el 11.01.1985; las cuales remitían el desarrollo del mismo a la redacción de un Plan Parcial, el cual fue aprobado definitivamente el 19.01.1993. En continuidad con dicho planeamiento, el ámbito de Kobate fue objeto de un proyecto de compensación aprobado el 4.03.1996 y de un proyecto de urbanización aprobado definitivamente el 20.12.1994. Este último programaba la urbanización del Sector en tres fases, restando únicamente por ejecutar la tercera de las mismas, la cual contempla la recuperación del espacio actualmente vinculado a usos extractivos una vez que finalice el periodo de concesión de la explotación.

El escrito presentado se completa mediante una documentación gráfica en la que se recoge la delimitación del Sector S-17 de acuerdo con el Plan General, diferenciando además los terrenos objeto de la concesión de la explotación denominada "Kobate", tanto los ubicados dentro del propio Sector, como los que se ubican en continuidad con el mismo, en suelo clasificado como No Urbanizable.

Considerando que la documentación presentada da cumplimiento a los aspectos que habían motivado que dicha materia quedara sobre la mesa en relación con el informe emitido por la Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial, se valora la misma favorablemente.

**II.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por la Dirección General de Aviación Civil (Anexo I), por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo II), por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental (Anexo III), por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo IV), por la Dirección de Infraestructuras del Transporte (Anexo V), por la Dirección de Agricultura y Ganadería (Anexo VI),



Abeltzaintza Zuzendaritza (VI. eranskina); Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza (VII. eranskina); Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzua (VIII. eranskina); eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia (IX. eranskina). Ziurtagiri honekin batera doaz txostenak.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 14an.

por la Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial (Anexo VII), por el servicio de Patrimonio Histórico-artístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Anexo VIII) y por la Dirección General de Gestión y Planificación de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Anexo IX), que se acompañan a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 14 de octubre de 2015.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO  
BATZORDEAREN IDAZKARIA  
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS  
VASCO



Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga